

SAINT PALAIS DONAPALEU

HERRIKO ALDIZKARIA / BULLETIN MUNICIPAL



É T É / 2 0 2 4 / U D A

BULLETIN MUNICIPAL HERRIKO ALDIZKARIA ÉTÉ / UDA / 2024

SOMMAIRE AURKIBIDEA

- 3** Etat civil.
Egoera zibila.
- 4** Le mot du Maire.
Auzapezaren hitza.
- 6** retrouver La Bidouze.
Biduze berriz atzematea.
- 10** Modification de la collecte des déchets sur Amikuze : un réel succès !
Amikuzen hondakinen bilketa aldatu da eta egiazko arrakasta du!
- 12** Gratuité des équipements de compostage.
Konpostatze ekipamenduak urririk
- 13** Chassons le frelon asiatique.
Asiako leizora, ihiztatu.
- 14** Arnaud Oihenart,
une grande figure de Saint-Palais
Allande Oihenart,
Donapaleutar ospetsua.
- 16** Focus sur la journée sport et partage.
Kirol eta partekatze eguna.
- 18** Terra Aventura.
Terra Aventura.
- 19** Redécouvrez le bois de Mixe.
Amikuzeko oihana berriz ezagutu ezazu.
- 20** Budget.
Aurrekontua
- 22** J'allume ma rue à Saint-Palais.
Nire Karrika pizten dut Donapaleun.
- 23** Maison de l'habitat et de l'énergie.
Bizilekuaren eta energiaren etxea.
- 24** Calendrier des animations prévues.
Udan pentsatuak diren ekitaldien egutegia.
- 26** Associations.
Elkartekak.

Responsable Communication:
Charles MASSONDO

ESPACE COPIE SAINT-PALEIS - Tél. 05 59 65 83 20-PCS B 379 407 547



COMMUNE DE
SAINT-PALEIS
DONAPALEU
H E R R I A



HORAIRES / ORDUTEGIA

Du Lundi au Vendredi / Asteleheneretik ostiralera
de 9h00 à 12h00 / 9:00 etarik 12:00 etara
et de 13h30 à 17h00 / eta 13:30 etarik 17:00 etara

CONTACT / KONTAKTUA

Place Charles-de-Gaulle / Charles-de-Gaulle plaza
64120 Saint-Palais / 64120 Donapaleu
E-mail contact@saint-palais.fr
Tel. 05 59 65 73 06
Fax 05 59 65 73 06

SERVICES / ZERBITZUAK

ÉTAT-CIVIL / EGOERA ZIBILA
etatcivil@saint-palais.fr

SITE INTERNET / WEBGUNE
siteinfo@saint-palais.fr

POLICE MUNICIPALE / HERRI ZAINTTA
policemunicipale@saint-palais.fr

SERVICE TECHNIQUE / ZERBITZU TEKNIKOAK
servicetechnique@saint-palais.fr

URBANISME / HIRIGINTZA
urbanisme@saint-palais.fr

COMPTABILITÉ / KONTULARITZA
compta@saint-palais.fr

ÉTAT-CIVIL EGOERA ZIBILA

Naissances / Sortzeak

SALLATO BEREAU Nolan 07/01/2024
THICOÏPE LONDAITZ Amets 25/02/2024
LEICIGUEÇAHAR Xenan 05/03/2024
PINGITORE Uhaina 13/03/2024
PREBENDE ECHEVERRIA Kemen 16/03/2024

Décès / Heriotzeak

LAPORTE Michelle, Gracie 31/12/2023
CASTERA Gilbert, José 05/01/2024
LE TARO Chantal 08/01/2024
CAMINONDO Marie, Jeanne 09/01/2024
LAGOURGUE Marie, Thérèse 14/01/2024
MOUSTIRATS Pierre, Marcel 04/02/2024
CADÈNE Raymonde, Lucienne 03/02/2024
MALHARIN Jean-Pierre 08/02/2024
OXARANGO Jeanne, Dorothée 09/02/2024
BORDA Marie-Thérèse 12/02/2024
CAMI Marie, Thérèse 17/02/2024
ORREINDY Arnaud 22/02/2024
DOS SANTOS CORREIA Nelson 24/02/2024
POCHELU Gracianne 07/03/2024
DARRIEUMERLOU Jean 11/03/2024
AYÇAGUER Martin 26/03/2024
ÇALDUMBIDE Lazarre 30/03/2024
BUCH-GIMENEZ Maria 01/04/2024
BARNEIX Pierre, Théodore 04/04/2024
SALLATO Marie, Jeanne 13/04/2024
GALLOT Charles 23/04/2024
ARIBIT Marie-Jeanne 06/05/2024
ARCONDÉGUY Félicie-Anne 25/05/2024
BISCAY Monique 27/05/2024
BERHOCOÏRIGOIN Marie 13/06/2024
LAMY Nicole, Eliane 16/06/24



LE MOT DU MAIRE AUZAPEZAREN HITZA

CHÈRES SAINT-PALASIENNES,
CHERS SAINT-PALASIENS,

Il y a 10 ans déjà Le 4 juillet 2014, Saint Palais connaît une inondation comme il n'en est pas connu de mémoire d'homme. Après un mois de juin particulièrement pluvieux, les sols gorgés d'eau ne peuvent plus évacuer les pluies abondantes qui tombent en cette nuit du 3 au 4 juillet.

La Bidouze d'abord, depuis son origine au pied des Arbailles à Saint-Just Ibarre, gonfle rapidement. Les ponts depuis Saint-Just-Ibarre, en passant par Larceveau, Arhansus, Larribar retiennent des amas de bois et d'arbres qui vont constituer des barrages spontanés. Un décès est à déplorer. La rupture de ces embâcles entraîne rapidement plusieurs vagues déferlantes sur la commune à l'orée du jour. La Joyeuse, avec une heure de retard, est aussi en crue, inondant la nouvelle déviation vers Amendeux-Oneix.

Les nageurs matinaux de la piscine doivent évacuer en urgence avant que leurs voitures ne soient emportées. Les entreprises et commerces en bord de rivières, les habitations, les terrains de sport subissent cette catastrophe.

La solidarité de tous, habitants, familles, amis, collectivités, se met en place rapidement pour essayer de panser les plaies de cette épreuve.

Cela peut-il arriver de nouveau ? Oui, probablement, même si des efforts et des avances significatives ont été accomplis en matière de prévention. Désormais les alertes météo déclenchent leurs signaux régulièrement. Le système d'information Preddict prévient les élus et les autorités dès qu'un événement climatique important survient. compagnies d'assurance et services de l'état sensibilisent sur les risques. Ainsi le 29 mars, plusieurs alarmes sont arrivées pour nous signaler du danger. Pour information, le 30 mars la hauteur d'eau mesurée à la station d'Aïciritz a été de 2.20. Pour mémoire, en 2014, elle fut de 3.77 m.

Notre ville a du charme, coincée entre ses deux rivières., Elle est habituée à vivre avec ses deux cours d'eau qui sont à l'origine de sa création. La cité s'est construite initialement le long de la Bidouze. On ne peut plus malheureusement y

DONAPALEUTAR
AGURGARRIAK,

Duela 10 urte jadanik, 2014ko uztailaren 4an, Donapaleun uholdea gertatu zen. Zaharren oroimenean sekula gertatu ez zen bezalako uholdea. Urte hartako ekaina bereziki euritsua izan zen eta lurra urez ase baitzen, ez zituen gehiago uztailaren 3tik 4ko gauean egin euri nasaiak atera ahal izan.

Lehenik Biduze handitu zen biziki fite, bere iturrian, Donaixti-Ibarren, Arbailen oinetan. Donaixti-Ibarreko, Larzabaleko, Arhantsusiko eta Larribarreko zubiek egur eta zuhaitz metak atxiki zituzten, berezko urtegiak sortuz. Hil bat izan zen. Egur meta horiek desegin zirelarik, arginabarrean uhain gaitzak heldu ziren herrira. Oren bat berantago, lholdiko erreka urak ere handitu ziren eta Amenduze-Unasora buruz doan saihezbidea estali zuten.

Igerilekura jina ziren igerilari goiztiarrek autoa urgentziaz atera izan behar zuten urak eraman ez zitzaizkien. Ibai bazterreko enpresek, saltegiek, etxeek eta kirol zelaiek hondamendia pairatu zuten.

Laster, elkartasuna sortu zen herritarren, familien, lagunaren eta elkargoen artean nahigabe horren zauriak goxatzeko.

Berriz gerta ote daiteke? Bai, hain segur, prebentzio aldetik indarrak eta aitzinamenduak egin badira ere. Orain, eguraldi alertak erregulariki pizten dira. Preddict informazio sistemak hautetsiei eta agintariei jakinarazten die gertakari klimatiko handi bat gertatuko dela. Asurantzak eta Estatuko zerbitzuek ere arriskuez sentsibilizatzen dute. Horrela, martxoaren 29an, alerta bat baino gehiago ukan dugu arrisku baten abisua emateko. Informazio gisa, martxoaren 30ean, Aiziritzeko estazioan uraren heina 2,20 metroraigoan da. Oroit 2014an 3,77 metroraigoan zela.

Gure herriak xarma anitz badu bi ibaien artean. Bere sorkuntzaren jatorrian diren bi ibaien artean bizitzera usatua da. Hastapenean herria Biduzeren bazterrean eraiki zen. Maluruski, egun ez daiteke errazki joan ibai bazterrean. Lehengo eihera handira joaten zen pasabidetik baizik ez daiteke Biduzera eta latsagietara buruz jautsi. Lehen, latsagia elkartzeko lekua zen.

Galdezka ari izan gara zergatik ote egun Donapaleuk bizkarra ematen



accéder facilement aujourd'hui. Seul le passage du moulin, vers l'ancienne minoterie, autorise cet accès vers la rivière et les anciens lavoirs municipaux. Ceux-ci étaient aussi des lieux de rencontres.

Nous avons voulu nous interroger pourquoi Saint-Palais tourne ainsi aujourd'hui le dos à la Bidouze. Quelques éléments historiques d'explication vous sont exposés dans ce bulletin. Des solutions permettraient à notre ville de cohabiter mieux avec sa principale rivière, en ouvrant des perspectives intéressantes d'aménagement, avec des espaces publics, tout en préservant la sécurité nécessaire.

C'est une réflexion que nous vous proposons, sous forme de devoir de vacances.

Bon été à vous tous !

Saint-Palais, le 30 Mai 2024

dion Biduzeri. Kazeta honetan zenbait elementu historiko aurkezten dizkizuegu esplikazio gisa. Aterabide batzuen bidez gure herria hobeki bizi liteke bere ibai nagusiarekin, antolamendu perspektiba interesgarri batzuk irekiz, zenbait eremu publikorekin eta beharrezko segurtasun neurriak atxikiz.

Proposatzen dugun gogoeta da, oporretako ikaslan gisa.

Uda on deneri!

Donapaleu, 2024ko maiatzaren 30a

Charles Massondo



RETROUVER LA BIDOUZE

La morphologie du centre-bourg de Saint-Palais est indissociablement liée au berges de la Bidouze. On constate aujourd'hui que la vie urbaine tourne le dos à la rivière. Pourtant il n'en a pas toujours été ainsi...

La fondation de Saint-Palais, ville neuve du 13^e siècle, puis capitale du Royaume de Navarre pendant près de 300 ans, est liée à la fois à la configuration d'un site naturel au bord de la Bidouze et à la proximité d'un carrefour majeur des chemins de Saint-Jacques de Compostelle.

Notre ville s'est lentement développée grâce à des échanges sur cet axe de communication très ancien entre la France et la Navarre. La ville a acquis ainsi sa prospérité par le privilège de la frappe de la monnaie octroyé par Charles II en 1351, par le développement des marchés et des foires, et enfin avec l'accueil de l'administration civile des États de Navarre jusqu'à la Révolution française. Nombre de sites témoignent de cette riche histoire : Hôtel de la Monnaie, maison de Jeanne d'Albret, église Saint-Paul, rue du Palais de Justice, etc.

Saint-Palais est fortement liée à son site naturel. Il suffit de traverser le pont de la route départementale et de contempler les façades urbaines qui se déploient sur les berges de la Bidouze. A son origine, le bourg était protégé à l'ouest par un rempart (actuelle rue du Palais de Justice) et à l'est par le fossé de la rivière. Cette barrière naturelle fut cependant une contrainte pour le développement urbain, les débordements de la rivière interdisant comme aujourd'hui encore toute implantation bâtie dans sa boucle. La crue exceptionnelle du 4 juillet 2014 qui

menaça les maisons près du pont l'a rappelé douloureusement. Les quartiers d'habitat de Saint-Palais se sont donc développés au nord pour les plus anciens, et au sud pour les plus récents, à distance de ce centre historique. Les équipements communaux ont occupé la colline à l'est (piscine et plaine des sports, centre hospitalier, collèges et lycée).

Si la ville de Saint-Palais est donc indissociablement liée aux berges de la Bidouze, une rapide observation permet de constater aisément que la vie urbaine lui tourne aujourd'hui le dos. Il n'en a pas toujours été ainsi. Dès le XIX^e siècle, les berges connaissaient de nombreuses activités, avec le moulin puis la minoterie, un embarcadere, un lavoir, des bains, le tout sur quelques dizaines de mètres le long de l'impasse actuelle du Moulin, en amont du pont routier.

Une stratégie pour réactiver ces espaces publics sur les berges de la Bidouze, et réaffirmer de nouveaux liens du centre-bourg patrimonial avec la rivière, pourrait être aujourd'hui mise en place.

Le site de l'ancienne minoterie est le projet témoin de cette stratégie, qui pourrait se déployer ensuite à l'échelle de la façade urbaine, par séquences successives. L'objectif n'est pas d'aménager les berges, mais plutôt de permettre des occupations temporaires ou transitoires, pouvant se confirmer

BIDUZE BERRIZ ATZEMATEA

Donapaleuko herri zentroaren morfologia Biduze bazterretarik ezin bereizia da. Gaur egun hiriko biziak ibaiari bizkarra ematen dio. Baina ez da beti horrela izan...

XIII. mendean Donapaleu hiri berria zen, eta ondotik Nafarroako Erresumako hiriburua 300 bat urtez. Herria sortu zen eremu natural bateko lekuen itxuraren arabera, Biduze bazterrean, eta Compostelako Jondoni Jakue bideko bidegurutze nagusi batetik hurbil.

Gure herria emeki-emeki garatu zen Frantziaren eta Nafarroaren arteko aspaldiko bide horretan. Herriak joritasuna kausitu zuten Karlos II.ak 1351n moneta Donapaleun fabrikatzeko pribilegioa eman zuelarik, merkatua eta feriak garatu zirelarik, eta Nafarroako Estatuaren administrazio zibila herrian plantatu zelarik Frantziako Iraultza arte. Toki anitz historia aberats horren lekuko dira: Monetaren jauretxea, Joana Albretekoaren etxea, Jondoni Paulo eliza, Auzitegiko karrika, etab.




Donapaleu biziki lotua da bere eremu naturalari. Errepideko zubia iragatea aski da eta Biduze bazterreko etxe aitzineki so egotea. Hastapenean harresi batek herria zaintzen zuen mendebaldean (oraingo Auzitegiko karrika), eta ibaiaren arroilak ekialdean. Bizkitartean muga natural horrek herriaren garapena trabatu zuen, ibaiaren gaindiarengatik ez baita deus eraikitzen ahal haren bihurgunean. Zubi ondoko etxeak arriskuan ezarri zituen 2014ko uztailaren 4ko ezohiko ur handitzeak bihozmekin oroitarazi zuen hori. Beraz, Donapaleuko bizileku-auzoaldeak iparraldean zabaldu dira lehenik eta berrienak hegoaldean, parte zaharretik urrun. Herriko ekipamenduak ekialdeko muinoan plantatu ziren (igerilekua eta kirol-eremua, ospitalea, kolegioak eta lizeoa).

Beraz, Donapaleuko herria Biduzeko bazterretarik ezin bereizia da, baina behaketa laster bat eginez gero hiriko biziak bizkarra ematen diola ohar daiteke. Ez da beti horrela izan. Alabaina, XIX. mendean, ibai bazterrean aktibitate anitz bazen hango eiheran eta eihera handian, kaian, latsagian, bainuetan, hori dena hamar bat metro luzeko eremuan, oraingo Eiherako karrika itsutik, errepideko zubia baino gorago.


Estrategia bat plantan ezar liteke Biduze bazterretako eremu publikoa berpizteko eta parte zaharren eta ibaiaren artean lotura berriak finkatzeko.

Eihera handia estrategia horren erakustaldi-proiektua da, ondotik herri aitzinaldean garatu ahal izan dena urratsez urrats. Helburua ez da ibai bazterrak antolatzea, baina aldi bateko okupazioak antolatzeko parada ematea, berantago eta erabileraren arabera indartzen ahalko dena. Adreiluzko etxearen erabilpena eta egin daitekeen lehengo latsagiaren antolaketa lehen adibideak dira.

Lekuaren bestelakotzea XIX. mendean geroztik



La transformation du site depuis le XIX^e siècle



Site de l'ancienne minoterie

avec le temps et les usages. L'utilisation de la maison en briques et l'aménagement potentiel de l'ancien lavoir en sont des premiers exemples.

À l'échelle plus large de la boucle de la Bidouze, il s'agirait de retisser un lien entre la ville et son paysage naturel, mais aussi et surtout réfléchir à une alternative à la voiture pour relier les quartiers d'habitat récents au sud et à l'ouest avec les équipements publics sur l'autre rive. Une étude globale des déplacements devrait permettre d'étudier aussi la faisabilité d'un franchissement de la rivière (déplacements doux uniquement) et d'un parcours adossé à une mise en valeur paysagère de la « rive droite ».

La Bidouze est notre rivière. Mais elle s'inscrit depuis des années dans notre représentation collective comme une simple image de carte postale, avec un point de vue fugace depuis

son pont en entrée de ville. Si cette image bucolique concentre certes des richesses patrimoniales et paysagères (chute d'eau, façades historiques et berges arborées, et vestiges du passé), elle n'en reste qu'un point de vue routier, éphémère, qui fait oublier toutes les autres façons possibles de contempler et de pratiquer ce long et beau linéaire des berges.

Les nouveaux enjeux urbains de notre ville sont en cours de précisions lors de différentes études. (Petites villes de demain, devenir de la halle aux cochons et de l'esplanade du marché couvert). Ce nouveau projet d'aménagement des bords de la Bidouze devra aussi contribuer à changer l'image et la pratique de la ville, et notamment offrir une contrepartie de nature et de déplacements doux à l'étendue minérale et routière du centre-bourg. Cette réappropriation est une opportunité supplémentaire pour améliorer notre cadre de vie.

Bidouze ibaiaren bihurtuneari dagokionaz, herriaren eta haren paisaia naturalaren arteko lokarriak berriz jostea da xedea, eta, sustut, autoaren alternatiba bati buruz gogoetatzea iparraldeko eta mendebaldeko bizileku-auzoalde berriak ibaiaren beste aldeko ekipamendu publikoei lotzeko. Joan-etorrien ikerketa orokorrari esker ibaia iragateko (joan-etorri ezten bidez baizik ez) eta ibilbide baten plantan ezartzeko egingarritasuna ikertuko da, eskuin bazterraren paisaia agerian utziz.

Bidouze gure ibaia da. Baina badu urteak gure irudikapen kolektiboan karta postaletako irudi soila baizik ez dela, herriaren sartzean ikuspuntu iheskorra eskainiz zubi gainetik. Irudi bukoliko horrek ondare eta paisaia aberastasunak biltzen ditu (ur-jauzia, etxe aitzin historikoak, ibai bazter arbolatsuak eta iraganeko herexak), errepidetik ikusten den ikuspuntua baizik ez da, joankorra, ibai bazterreko ibilbide luze eta eder horri so egoteko beste manera guziak ahantzazten dituen.


Hirigintzako erronka berriak zehazten ari dira ikerketen bidez. (Biharko Hiri Ttipiak, zerri merkatu estaliaren eta merkatu estaliko zabaldegia etorkizuna). Biduze bazterreko antolamendu proiektu berri horrek herriaren irudia eta praktika aldatu beharko lituzke, eta bereziki natura eta joan-etorri eztiak eskaini herri zentroko hedadura mineralaren eta errepideen ordainez. Biduze bazterrak berriz baliatzea beste parada bat da gure bizi ingurumena hobetzeko.



**Erdi Aroko herriaren
ondoriotasuna, Industria
Iraultzaren ondoriotasuna**



**Héritage du bourg médiéval,
héritage de la révolution
industrielle**



Estalki eta paper guziak bereintzen dira!



Tous les emballages et papiers se trient !

AMIKUZEN HONDAKINEN BILK-ETA ALDATU DA ETA EGIAZKO ARRAKASTA DU!

2023an Amikuzeko Lurralde Eremuko hondakin bilketan aldaketak izan dira helburu bat baino gehiagoren kausitzeko:

- birziklagarriak ez diren etxe-hondakinen murriztea,
- bildu estalki eta paperen kopurua emendatzea,
- birziklatzea edota birbaliatzea emendatzea,
- hondakinak konpostatzearen bidez balorizatzea,
- zerbitzuaren kostua menderatzea.

2023ko urtarrilean, bereizketa agindu sinpleagoa plantan ezarri zen Ipar Euskal Herri osoan: etxeko estalki eta paper guziak elkarrekin bereintzen dira edukiontzi berean.

2023ko agorrilean, Amikuzeko Lurralde Eremuan lehengo edukiontzi gurpildunak kendu dira 92 bilketa-gune osori tokia uzteko, edukiera handiagoa duten edukiontziekin estalkien, paperen eta berinakien bereizteko eta etxe-hondakinen botatzeko.

Oroitarazten da bereizketa edukiontziak libreki erabiltzen direla hondakinak nahas-mahas botatzeko. Etxe-hondakinatarako edukiontziak zure etxeari edo lantokiari dagokion ezagugailuarekin baizik ez daitezke ireki.

Amikuzeko herrietan 380 edukiontzi ezarri dira eta 6 400 etxek badute ezagugailua.

Ekipamendu berri horiek zikinak botatzeko usaiak aldatu dituzte eta bereizketa hobetu da.

- Zenbait hilabetez emaitzak onak dira: 2022ren aldean etxe-hondakinen kopurua % 35ez apaldu da bana besteko azken 4 hilabeteetan, hots 262 tona "saihestu" dira, hala nola etxe-hondakinak bildu dituzten 37 kamioi gutiago Mendixkan,

- eta ere, bereizketa agindu berrien arabera estalki birziklagarriak eta paperak + % 16z emendatu dira bana besteko Barnealdeko lurralde osoan (Amikuze barne).

Bizkitartean bereizketa ez da beti behar bezala eginga, eta behin

MODIFICATION DE LA COLLECTE DES DÉCHETS SUR AMIKUZE : UN RÉEL SUCCÈS !

En 2023, la collecte des déchets sur le territoire d'Amikuze a connu des changements afin d'atteindre plusieurs objectifs :

- Réduire la quantité de déchets ménagers non recyclables collectés (les ordures ménagères),
- augmenter les tonnages d'emballages et papiers collectés,
- augmenter le recyclage et/ou la réutilisation,
- valoriser les déchets par le compostage,
- maîtriser le coût du service.

En janvier 2023, une nouvelle consigne de tri plus simple a été mise en place sur l'ensemble du Pays Basque : tous les emballages ménagers et papiers se trient ensemble dans le même contenant.

En août 2023, sur les communes du pôle d'Amikuze, les anciens bacs roulants ont été enlevés pour laisser place à 92 points de collecte complets, équipés de colonnes de plus grande capacité pour le tri des emballages, des papiers, du verre et pour le dépôt des ordures ménagères.

Pour rappel, les colonnes de tri sont en libre accès et les dépôts se font en vrac. Les colonnes pour les ordures ménagères s'ouvrent uniquement avec le badge attribué à votre habitation ou à votre activité.

Ainsi, sur les communes d'Amikuze, près de 380 colonnes ont été installées et 6400 foyers équipés de badges.

Ces nouveaux équipements ont entraîné un changement des habitudes de dépôts et ont aussi favorisé le geste de tri.

En quelques mois, les résultats sont probants :

- une baisse moyenne de 35% des tonnages d'ordures ménagères sur les 4 derniers mois par rapport à 2022, soit environ 262 tonnes « d'évités », soit l'équivalent de 37 camions ordures ménagères de moins à Mendixka,
- et aussi, une progression moyenne de + 16 % des emballages

**Ez baldin baduzu oraino zure ezagugailua ukan edo haren erabiltzeko zailtasunak baldin badituzu, sar zaitetz harremanetan hondakinen zerbitzuarekin:
05 59 57 11 80 edo
dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr**



Si vous n'avez pas encore votre badge ou si vous rencontrez des difficultés dans son utilisation, contactez le service déchets au 05 59 57 11 80 ou à dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr.

eta berriz ageri dira bereizketa akats berak, eta horrek ondorioak ditu langileengan edo bereizketa-zentroko instalazioetan. Estalkien eta paperen erdian berinazko botilak ere atzematen dira, pilak, etxe-hondakin zakuak eta ehunak; hauek ehun-edukiontzietan bota behar dira.

2024ko hastapenean Amikuzeko herrietan ehun-edukiontziak eta pila-kutxak ezarriko dira herri bakoitzean ekipamendu mota gehiago izateko eta herritarrek gehiago bereiztera sustatzeko.

Beste hondakin guziak, handiak edota toxikoak, kartoi lodiak barne, hondakindegira eraman behar dira.

2023ko maiatzaz geroztik, tenore berriak badira Donapaleuko hondakindegian, Ordokian lotizamendua - Donapaleu.:

Astelehenetan: 14:00-18:00

Asteazken, ortzirale eta ebiakoitzetan: 9:00-12:00 eta 14:00-18:00

Hondakinen murrizketari buruz edo bereizketari buruz galdera bat baldin baduzu, sar zaitetz harremanetan Bil Ta Garbi sindikatuko bereizketa-aholkulariarekin: 06 45 48 88 18 edo elorri.larcabal.biltagarbi.fr

recyclables et des papiers lié aux nouvelles consignes de tri sur l'ensemble du territoire Barnekalde (dont Amikuze fait partie).

Cependant, la qualité du tri n'est pas toujours au rendez-vous et des erreurs de tri récurrentes ont des conséquences pour les agents ou pour les installations du centre de tri. Au milieu des emballages et papiers, on trouve ainsi des bouteilles en verre, des piles, des sacs d'ordures ménagères et des textiles alors que ces derniers doivent être déposés dans les colonnes textiles dédiées.

Début 2024, sur les communes d'Amikuze, des colonnes textiles et des collecteurs de piles seront déployés afin de permettre à chaque commune d'être mieux équipée pour inciter à davantage trier.

Tous les autres déchets, volumineux et/ou toxiques, y compris les gros cartons bruns, doivent être apportés en déchèterie.

Depuis mai 2023, de nouveaux créneaux d'ouverture de la déchèterie de Saint-Palais, Lot. Ordokian - Saint-Palais :

Lundi: 14h/18h

Mercredi, vendredi et samedi : 9h/12h - 14h/18h

Pour toute question concernant la réduction des déchets et les pratiques de tri, l'Ambassadrice du Tri du Syndicat Bil Ta Garbi est joignable au : 06 45 48 88 18 ou elorri.larcabal.biltagarbi.fr

Aurten gure elkargoek bereizketa aterabideak proposatu behar dituzte bio-hondarkinen iturrian

Cette nouvelle année est marquée par l'obligation faite à nos collectivités de proposer des solutions de tri à la source des biodéchets

KONPOSTATZE EKIPAMENDUAK URRIRIK

Dakizun bezala, Euskal Hirigune Elkargoak eta Bil Ta Garbi sindikatuak jakinarazi dute konpostatze ekipamendu guztiak kitorik direla hondarkin kudeaketaren zerbitzu publikoko erabiltzaile guzientzat 2024ko urtarilaren 1az geroztik.

Aurten gure elkargoek bereizketa aterabideak proposatu behar dituzte bio-hondarkinen iturrian. Karia horretara, atxikirik atzemanen duzu dokumentu bat zure herritarrei argibideak behar bezala emateko, baita ere komunikaziorako lehenbiziko elementuak. Edukia zure tresna numerikoetarako da (webgunea eta sare sozialak) eta herriko kazetarako. Alabaina, laster sartuko gara zurekin harremanetan komunikazio euskarri berriekin (erabiltzeko prest diren artikulak, banaketa guneen zerrenda, afixa, eskuorria...).

Bestalde, oroitarazten dizugu auzoaldeetako konpostagailuak ere kitorik direla. Proposatzen dizugu zure zerbitzuen laguntza teknikotik haste eta konpostagailu kolektiboak (edo auzoaldeetako konpostagailua) plantan ezartzeraino laguntzea, baita ere boluntario diren zure herritarren formatzea. Horregatik, sar zaitetz harremanetan zure konpostatze-maisuarekin (harremana: biodechets@biltagarbi.fr).

GRATUITÉ DES ÉQUIPEMENTS DE COMPOSTAGE

Comme vous le savez, la Communauté d'Agglomération Pays Basque et le Syndicat Bil Ta Garbi ont annoncé la gratuité de tous les équipements de compostage pour les usagers du Service public de gestion des déchets (sauf professionnels) ce 1^{er} janvier 2024.

Cette nouvelle année est marquée par l'obligation faite à nos collectivités de proposer des solutions de tri à la source des biodéchets. A ce titre, vous trouverez en pièce jointe, pour la bonne information de vos administrés, des premiers éléments de communication à ce sujet. Ce contenu est destiné à vos outils digitaux (site Internet et réseaux sociaux) et à vos bulletins municipaux. En effet, nous reviendrons vers vous très prochainement avec de nouveaux supports de communication (articles "prêt à l'emploi", liste des points de distribution, affiche, flyer...).

Par ailleurs, nous vous rappelons que cette gratuité concerne également les composteurs de quartiers. Nous vous proposons une prise en charge allant de l'accompagnement technique de vos services à la mise à disposition des composteurs collectifs (ou composteurs de quartiers) en passant par la formation de vos administrés volontaires. C'est pourquoi, n'hésitez pas à vous rapprocher directement des maîtres-composteurs (contact : biodechets@biltagarbi.fr).

CHASSONS LE FRELON ASIATIQUE

Il est urgent de poser les pièges maintenant



Piège "Tap-Trap®"



ASIAKO LEIZORA, IHIZTATU

Orain, behar dira arteak pausatu

NOIZ ?

- Otsail erdialdetik maiatzaren hasiera arte

ZEREKIN?

- Tap-Trap® edo
- Botila gardenak
- 25 edo 33 cl-ko garagardoz eta 5 cl-ko granadina edo jarabe beltzaz ziropez osatutako beita.

NUN?

- Jarri artea lurretik 1,50 metrora iguzkitarat
- Erle kofoinen, asiako leizor kafiren eta zuhaixken inguruan (camelias, cotonaesters...)

ZEPOEN JARRAIKIA

- Berritu beita hamar egunetarik
- hilak diren hiru leizor ezarri eta beita mugitu leizorrek ez diren insektoak harrapatzen baditu.

IKUSTEN BADUZUE LEIZOR KAFIRA BAT,

- deitu Herriko Etxerat.
- Ez saiatu bakarrik haustea.



QUAND ?

- Mi-février/mars à mai (6 à 8 semaines)

AVEC QUOI ?

- Pièges Tap-Trap® et
- Bouteilles transparentes appât composé de 25 ou 33 cl de bière et 5 cl de sirop de grenadine ou cassis.

OU ?

- Suspendre à partir de 1,50m du sol exposé au soleil.
- Autour des ruches, des anciens nids et des arbustes en fleurs (camélias, cotonaesters...)

SUIVI DU PIEGE

- Renouveler l'appât tous les 10 jours.
- Remettre 3 frelons morts et déplacer impérativement le piège si trop d'insectes autres piégés.

SI VOUS VOYEZ UN NID DE FRELONS

- Informez votre mairie, sans attendre !
- Ne tentez pas de le détruire vous-même.

ARNAUD OIHENART, UNE GRANDE FIGURE DE SAINT-PALAIS


Arnaud Oihenart est une personnalité éminente du XVII^e siècle, originaire de Mauléon et marié à Saint-Palais. Son œuvre majeure, "Notitia Utriusque Vasconiae", représente une source inestimable d'informations sur la géographie, l'histoire et la culture de la Vasconie de son époque. Avocat et député aux États de Navarre, ses écrits témoignent de son profond attachement pour la langue et la culture basque.

UN SOULETIN DEVENU NAVARRAIS

Arnaud Oihenart est né en 1592 à Mauléon. Il est le fils d'Arnaud d'Oihenart, avocat et procureur du roi en Soule, et de Jeanne d'Etchart. Après avoir étudié à l'université de Bordeaux, il obtient sa licence en droit et devient avocat. En 1623, il est élu syndic général du tiers-état de Soule. En 1627, Oihenart épouse Jeanne d'Erdoï, fille du seigneur de la Salle d'Erdoï de Saint-Palais (connue sous le nom de maison des Têtes). Elle est la veuve de Jean de Lostal-Maucor, vice-chancelier de Navarre. L'union avec Jeanne d'Erdoï confère à Oihenart le droit de siéger aux États de Navarre en tant que membre de la noblesse, ainsi que d'exercer la fonction de gentilhomme juge aux Cours Générales de Mixe et d'Ostabaret. Il est reçu avocat au parlement de Navarre à Pau ainsi qu'au parlement de Bordeaux et devient Intendant de la maison de Gramont. En 1647, Oihenart est élu jurat de Saint-Palais. En 1667, il rédige son testament, dans lequel il attribue neuf cents livres à la constitution d'une rente en faveur des pauvres de Saint-Palais, avant de décéder le 14 janvier 1668 à Saint-Palais. Il repose dans la tombe de la maison d'Erdoï.

UN ÉCRIVAIN EN LANGUE BASQUE

Arnaud Oihenart est le premier laïc à s'intéresser à l'écriture et à la littérature basques. Ses principaux écrits en langue basque sont « Atsotizac, edo Refraüac », un recueil de 707 proverbes publié en 1657, et « Gaztaroa neurtitzetan », un recueil d'élégies de jeunesse publié en 1657. Dans « L'Art poétique basque », une lettre inédite rédigée en 1667, il expose sa vision sur les modèles poétiques latins, italiens, espagnols et français.



UN HISTORIEN CÉLÈBRE ET ÉRUDIT

C'est chez les Gramont qu'il se découvrit la vocation d'historien, en explorant la bibliothèque si riche en documents précieux. Il lit le latin, le grec, le français, l'espagnol, l'italien, le basque. C'est à Saint-Palais qu'il entreprend la rédaction de son ouvrage majeur « Notitia Utriusque Vasconiae », dont la première édition est de 1638. La première partie décrit la Vasconie et il y dédie quatre chapitres à caractériser la langue basque. La seconde partie traite de la Navarre et de ses institutions. La troisième partie traite des Basques d'Aquitaine. Cet ouvrage de 600 pages est célèbre. C'est l'un des plus objectifs de son siècle. Beaucoup de ses vues sur l'histoire ou sur le verbe basque ont été reprises de nos jours. « Notitia Utriusque Vasconiae » devient une référence pour les études historiques et géographiques de la région. Oihenart réfute les thèses de certains historiens, notamment castillans, en montrant que la langue basque était parlée dans l'antiquité sur un territoire bien plus vaste que les 7 provinces actuelles.

AUJOURD'HUI

Grâce à l'association Zabalik, au musée de Basse-Navarre ainsi qu'à de généreux donateurs, l'héritage d'Arnaud Oihenart reste vivant à Saint-Palais. L'acquisition récente d'un exemplaire original de "Notitia Utriusque Vasconiae" renforce les liens entre la ville et l'une de ses plus illustres personnalités et donne à tous l'occasion de mieux connaître et reconnaître la valeur de notre culture basque. Cet ouvrage sera bientôt visible dans le nouveau musée de Basse-Navarre à Bideak.

ALLANDE OIHENART, DONAPALEUTAR OSPETSUA


Allande Oihenart XVII. mendeko pertsona nabarmena da, Maulekoa eta Donapaleura ezkondua. Bere obra nagusia, "Notitia Utriusque Vasconiae", bere garaiko Euskal Herriko geografia, historia eta kulturari buruzko informazio iturri paregabea da. Abokatua eta Nafarroako Estatuetako diputatua, bere idazkiek euskal hizkuntza eta kulturarekiko atxikimendu sakona erakusten dute.

ZUBEROTARRA NAFARTAR EGINA

Allande Oihenart 1592an sortu zen Maulen. Zuberoako erregearen Prokuradore eta abokatu zen Allande Oihenarten eta Joana Etxarteen semea da. Bordeleko Unibertsitatean ikasi ondoan, zuzenbidean lizentziatu eta abokatu bilakatu zen. 1623an, Xiberoko hirugarren estatuko sindiko nagusi hautatua izan zen. 1627an, Erdoi Salako jaunaren alabarekin ezkondu zen, (Donapaleuko Erdoiko Sala, buru kilako etxea bezala ezagutua da). Jean de Lostal-Maucor Nafarroako kantziler ordearen alarguna den Joana Erdoikoarekin bat egiteak Oihenarti Nafarroako estatuetan nobleziako kide izateko eskubidea ematen dio, bai eta Amikuze eta Ostibarreko Gorte Nagusietan epaile kargua ere. Pauen den Nafarroako Parlamentuan eta Bordeleko Parlamentuan abokatu onartua da eta Agaramontarren Etxeko Intendente bilakatzen da. 1647an, Oihenart Donapaleu hiriko zinegotzi (edo kontseilari) hautatua izan zen. 1667an, bere testamentua idatzi zuen, non bederatziehun libra eman zizkion Donapaleuko behartsuen aldeko errenta bezala. 1668ko urtarilaren 14an pausatu zen eta bere gorputza Donapaleuko Erdoi Salakoan hilobian dago.

EUSKARAZ IDAZLE TREBEA

Allande Oihenart euskal literaturatan aritu zen lehen laikoa da. Bere euskarazko obra nagusiak hauek dira : "Atsotizac, edo Refraüac", 1657an argitaratutako 707 atsotitzen bilduma eta "Gaztaroa neurtitzetan", 1657an argitaratutako gazte denborako poesia bilduma. "L'Art Poétique Basque" aldiz, 1667an idatzitako gutun batean, eredu poetiko Euskaldun, latindar, italiar, espainiar eta frantsesei buruzko bere ikuspegia azaltzen du.



HISTORIALARI OSPETSUA ETA JAKINTSUA.

Agaramontarren artean aurkitu zuen historialari izateko bokazioa, dokumentu baliotsuetan hain aberatsa zen liburutegia arakatzuz. Latina, grekoa, frantsesa, gaztelania, italiara eta euskara irakurtzen zituen. "Notitia Utriusque Vasconiae" bere obra nagusia Donapaleun hasi zen idazten, lehen edizioa 1638an agertua izan zelarik. Lehen parteak Baskonia deskribatzen du, lau kapitulutan euskararen ezaugarri batzuk aurkeztzen dituelarik. Bigarren zatia Nafarroaz eta bertako instituzioez ari da. Hirugarren parteak Akitaniako euskaldunei buruzkoa da. 600 orrialdeko lan hau ospetsua da: Bere mendeko objektiboenetako bat da. Historiari edo euskal aditzari buruz dituen iritzi asko kontutan hartuak dira gaur egun. "Notitia Utriusque Vasconiae" erreferentzia da gure eskualdeko ikerketa historiko eta geografikoentzat. Oihenartek zenbait historialariren tesiak ezeztatzen ditu, bereziki erdaldunak, euskara gaur egungo 7 probintziak baino askoz lurralde zabalagoan mintzatzen zela erakutsiz.

GAUR EGUN

Zabalik elkarteari, Nafarroa Behereko Museoari eta emaila eskuzabalei esker, Allande Oihenartek bizirik dirau Donapaleun. "Notitia Utriusque Vasconiae" liburuaren 1637ko jatorrizko ale bat eskuratuz gero, herriararen eta hiriko pertsona ospetsuenen arteko loturak sendotzen dira, eta gure euskal kulturaren balioa hobeto ezagutzeko eta aitortzeko aukera ematen die guztiei. Obra hori laster ikusgai izanen da Nafarroa Behereko museo berrian, Bideak-en.



Une journée « sport et partage » proposée à un public mixte comprenant des personnes en situation de handicap et des personnes valides.

FOCUS SUR LA JOURNÉE SPORT ET PARTAGE

Dans le cadre du label « Terre de jeux », la commune de Saint-Palais, en partenariat avec les associations du territoire et plusieurs organismes composant la commission départementale sport et handicap, a proposé à un public mixte, comprenant des personnes en situation de handicap et des personnes valides, une journée « sport et partage ». Cette journée, aussi festive que sportive, était placée sous le signe de la mixité et de la convivialité.

Les objectifs de cette journée étaient de :

- mettre en avant à la fois la pratique sportive partagée, un territoire et ses associations sportives,
- donner plus de visibilité à ce qui est fait et ce qui pourrait être développé pour augmenter l'offre de pratique sportive en direction du public en situation de handicap,
- sensibiliser les valides aux problématiques du handicap.

Cette action a été menée en partenariat avec :

- la commune de Saint-Palais et le pôle territorial Amikuze de la CAPB qui mettent gracieusement à disposition le complexe sportif de Saint-Palais autour des berges de la Bidouze, et les services techniques municipaux et communautaires pour l'organisation de la journée ;
- le CCAS, pour la diffusion de l'information au public ciblé non licencié sportif ;
- le conseil municipal des jeunes de Saint-Palais ;

- les associations sportives du territoire ;
- les institutions et établissements du territoire accueillant le public ciblé.

Cette animation a été réalisée avec le concours des associations sportives du territoire. Sans elles, cette fête n'aurait pas pu avoir lieu. Elles ont fourni du matériel, ont engagé leurs employés, leurs bénévoles et leurs licenciés. Nous tenons chaleureusement à les remercier pour leur action. Au cours de cette journée, les participants auront pu pratiquer : natation, football, rugby, judo, Yoseikan budo, vélo, pelote, tennis, athlétisme, hand-ball, sarbacane... Encore un grand merci ! Nous en profitons aussi ici pour les féliciter dans leur investissement et leur engagement permanents qui font rayonner Amikuze bien au-delà de ses limites et dynamise notre territoire.

Les ateliers se sont déroulés de 10h à 12h et de 13h30 à 16h. Les bénévoles ont pu se retrouver autour d'un repas le midi puis échanger, à l'issue des ateliers, sur les problématiques d'accueil, les accompagnements possibles et les pratiques existantes.

Pour clôturer la journée, une remise de prix a récompensé des associations et des bénévoles pour leur engagement dans la pratique sportive partagée. Bravo à eux !

Une bien belle journée de rencontre, de solidarité, d'amitiés, de sport et de partage. Cet événement aura permis de faire du lien, de se connaître et de se découvrir. A renouveler, sans hésitation !



KIROL ETA PARTEKATZE EGUNA

Ahalmen urriko pertsonak eta pertsona osasuntsuek osatu publiko mistoari proposatu zaie "kirol eta partekatze" egun bat.

"Joko lurraldea" labelaren kariatara, Donapaleuko Herriko Etxeak, lurraldeko elkarteekin eta Kirolari eta Elbarritasunari buruzko Departamendu Batzordea osatzen duten erakunde batzuekin partaidetzan, ahalmen urriko pertsonak eta pertsona osasuntsuek osatu publiko mistoari proposatu dio "kirol eta partekatze" egun bat. Kirol eta besta egun hori denak elkartzu eta giro goxoan iragan da.

Egun horretako helburuak ziren:

- kirol praktika partekatua, lurraldea eta haren kirol elkarteak agerian uztea,
- ikusgarritasun gehiago ematea sail horretan egiten denari eta garatzen ahal litekeen kirol praktika eskaintza handitzeko ahalmen urriko pertsonentzat,
- pertsona osasuntsuak sentibilizatzea elbarritasunaren arazoei.

Ekintza hori partaidetzan egin da:

- Donapaleuko herriarekin eta Euskal Elkargoko Amikuzeko Lurralde Eremuarekin (Donapaleuko kirol gunea kitorik utzi dute Biduze bazterretako inguruetan), eta eguna antolatuta duten herriko eta elkargoko zerbitzu teknikoekin;
- GEUZarekin: lizentziaduna ez den publiko elbarrituari berria jakinarazi dio;
- Donapaleuko gazteen Herriko Kontseiluarekin;
- lurraldeko kirol elkarteekin;

- publiko elbarritua errezibitzen duten lurraldeko instituzioekin eta erakundeekin.

Animazio hori egin da lurraldeko kirol elkarten laguntzarekin. Haiek gabe besta hori ez zen gertatuko. Materiala prestatu dute eta langileak, boluntarioak eta lizentziadunak gure esku utzi. Kartsuki eskertzen ditugu egin dutena eginik. Egun horren kariatara parte hartzaileek kirol bat baino egin ahal izan dute: igeriketa, futbola, errugbia, judoa, Yoseikan budo, bizikleta, tenisa, atletismoa, esku baloia, pilota, zerbata. Berriz ere milesker! Paradaz baliatzen gara goresmenak emateko beren engaia emenduatik, haiei esker Amikuzek bere lurraldearen mugetatik kanpo dirdiratzeko baitu eta gure lurraldea dinamizatzen baitute.

Tailerrak iragan dira 10:00etatik 12:00etara eta 13:30etik 16:00etara. Boluntarioak bazkariaren kariatara bildu dira eta tailerrak ondotik trukatu ahal izan dute harrera arazoei buruz, posible diren laguntzei buruz eta dauden praktikei buruz.

Eguna bururatzeko, sari banaketa baten bidez elkarte eta boluntario batzuk sarizatu dira kirol partekatuen praktikan biziki engaiatuak baitira. Biba haiek!

Topaketa, elkartasun, adiskidetasun, kirol eta partekatze egun ederra izan da. Ekitaldi hori esker loturak sortu dira, jendeek elkar ezagutu dute. Berriz egitekoa!

Lurraldea ezagutzeko gogoa duzu? Jarduera bat familian egiteko gogoa edo abenturak bizitzekoa?... Hauta ezazu Donapaleuko Terra Aventura!

Envie de découvrir le territoire, d'une activité en famille, de partir à l'aventure ?... Optez pour Terra Aventura à Saint-Palais !

TERRA AVENTURA

Akitania Berriko eskualdea zabala bezain harrigarria da!

Eremu naturalak baditu, parte zaharrak, hiri dinamikoak, hondartza ederrak... Kultura sendoa eta ondare bakana duen lurraldea ere da. Animaleko jostalekua da, Terra Aventura eskertu ezagutzekoa!

Terra Aventura mundu pilpiratsua da oroz lehen. lurraldeetako ondarea eta aberastasunak ezagutzeko. Aplikazioa kitorik da eta ibilaldi ludikoak proposatzen ditu naturan gaindi edo herri politetan; urratsez urrats laguntzen zaitu leku bikainetara, ikuspuntu ederretara, ezohiko guneetara... eta enigmak proposatzen ditu. Erantzun guziak zuzenak badituzu, altxorra aurkituko duzu, Graal Sakratua, hots, gutiziatu gordelekua. Gordeleku horretan Poiz ikur pertsonifikatuak atzemanen dituzu bilduma egiteko! Gau eta egun balia daiteke aplikazioa, eta ibilbideek lurraldea ezohiko maneran ezagutzea proposatuko dizute! Geocaching jarduera originala da Akitania Berrian, eta denendako egina da! Ttipienek ere ibili kilometroak ahantziko dituzte bilaketa hain da gogo-pizgarria!

Aplikazioarekin biziki erraza da! Kitorik da, telekargatzea aski da eta kontu bat sortzea; hizkuntza batean baino gehiagotan itzulita da. Aplikazioan gaikako 400 bat ibilbide atzemanen dituzu. Ibilbide guziek fitxa batean zehazten dute: iraupenaren estimazioa, ibilbidearen zailtasuna, galderen zailtasuna, zirkuituaren helgarritasuna (bizikleta, haur karrosa...), gaia eta lekua.

Ez duzu smartphonerik? Zoaz Turismo Bulegora bide-orriaren eskuratzeko! Jarduera berri hori 2024an zehar egiten ahaliko da Donapaleun. Artean, gure herritik hurbil diren beste herri batzuek jadanik proposatzen dute: Irizarri, Salbaterra Bearn, Maule, Laàs, Saliese, Donibane Garazi, Irulegi, Bidaxune.



TERRA AVENTURA

La région Nouvelle-Aquitaine est aussi vaste que surprenante ! Espaces naturels, cœurs historiques, villes dynamiques, plages mythiques... C'est aussi un territoire qui abrite des cultures fortes et un patrimoine exceptionnel. Un immense terrain de jeu à découvrir avec Terra Aventura !

Terra Aventura est avant tout un univers palpitant qui permet de découvrir le patrimoine et les richesses des territoires. L'application, 100% gratuite, propose des balades ludiques en pleine nature ou dans de charmants villages, elle vous guide étape par étape, à des points remarquables, de jolis points de vue, des passages insolites... où des énigmes sont formulées. Si toutes les réponses sont justes, cela vous mènera au trésor, le Saint-Graal tant convoité appelé la cache. Cette cache contient les Poiz, des badges personnalisés à collectionner ! Disponibles tous les jours, 24h/24, les circuits vous proposent de découvrir le territoire de façon insolite ! C'est une activité originale de géocaching en Nouvelle-Aquitaine et qui s'adresse à tous ! Même aux plus petits, il arrive d'oublier le nombre de km parcourus tellement la quête est passionnante !

Avec l'appli, rien de plus facile ! Il suffit de télécharger l'application gratuite, traduite en plusieurs langues et de se créer un compte. L'application vous ouvrira les portes de plus de 400 parcours thématiques. Tous les parcours disposent d'une fiche qui donne une estimation de temps, des indications sur la difficulté du terrain, la difficulté des questions, l'accessibilité du circuit (vélo, poussette...), la thématique et le lieu du circuit.

Vous n'avez pas de smartphone, rendez-vous en Office de Tourisme pour récupérer la feuille de route ! Cette nouvelle activité sera disponible à Saint-Palais courant 2025. En attendant d'autres communes proches de chez nous la proposent déjà (Irissarry, Sauveterre-de-Béarn, Mauléon-Licharre, Laàs, Salies-de-Béarn, Saint-Jean-Pied-de-Port, Irouléguy, Bidache).

REDÉCOUVREZ LE BOIS DE MIXE

C'est aujourd'hui l'un des plus importants massifs forestiers du Pays basque.

En allant vers Bidache, sur les hauteurs d'Arraute, il est difficile d'imaginer que tous ces pâturages étaient couverts de forêts profondes il y a 500 ans. Ces bois, propriété indivise à l'origine obscure, gérés collectivement par les habitants d'Amikuze, jouaient un rôle majeur pour l'économie de l'époque exclusivement agricole : bois d'œuvre et de chauffage, châtaignes et glands, fumier, charbon de bois, etc. A moitié consommés par la forge de Came, largement déjà défrichés pour répondre à l'augmentation démographique, 5000 hectares de forêt et de landes subsistaient en 1789. Les révolutionnaires ne reconnaissant pas un droit basque très particulier permettant la propriété collective, et voulant imposer une gestion plus conforme à leurs principes, créèrent des structures successives de gestion jamais acceptées par les Amikuztar. Après 50 ans de troubles et d'émeutes, une loi spécifique fut votée par l'Assemblée nationale pour ce type de biens indivis (pâturages de Soule, de Garazi, etc.), et un syndicat intercommunal fut créé en 1837. Bidache avait déjà repris sa part en 1819 et quitté l'indivision. De ce qui restait, 3272 hectares de landes furent partagés en 1855 entre les autres communes (actuels "communaux" des communes d'Amikuze, pour celles qui les possèdent encore), dont 423 hectares pour Saint-Palais localisés sur son territoire, mais aussi sur Orsanco et Beyrie. Les 655 hectares de forêt profonde qui sont restés de ce partage partiel constituent aujourd'hui le bois de Mixe, géré par 21 communes d'Amikuze (dont Saint-Palais), avec en plus Escos la béarnaise, vestige de son appartenance jadis au royaume de Navarre.

C'est aujourd'hui l'un des plus importants massifs forestiers du Pays basque. Traversée par le ruisseau de la Patarena, la forêt est aujourd'hui gérée par le Syndicat forestier de Mixe et l'Office National des Forêts. Vous y retrouverez des essences de bois variées comme des chênes rouges d'Amérique, des hêtres, des frênes, des érables ou encore des tulipiers de Virginie. Aménagée de manière remarquable, les passerelles et ponts de singe proposent un côté ludique pour les plus jeunes. Les plus curieux pourront satisfaire leur besoin de savoir grâce à des panneaux explicatifs permettant de découvrir les différentes espèces d'arbres et d'autres informations sur le milieu forestier. Un abri et une aire de pique-nique installés sous un couvert de très beaux hêtres permettent au randonneur de passer un agréable moment de détente.

Un film de présentation est également disponible en cliquant allant sur le lien ci-dessous : <https://kanaldude.eus/bideoak/6185-hurbiletik-amikuzeko-oihanean-ibiliz>

AMIKUZEKO OIHANA BERRIZ EZAGUTU EZAZU

Gaur egun Ipar Euskal Herriko oihan handienetarik bat da

